

Oihartzun eta Nartziso

Greziako aspaldiko kondaira batek Oihartzun eta Nartzisoren istorioa honela kontatzen du:

Oihartzun neska eder bat zen, oihan eta iturrietako ninfa pinpirina. Nartziso, berriz, garai haietako mutilik ederrena zen. Oihartzunek Nartziso ikusi zuen batean, erabat maitemindu zen hartaz. Hain zen ederra mutil hura!

Nartzisok, ordea, ez zion batere Kasurik egin, eta Oihartzun gajoa maitasunez gaixotu zen, ez zuen jaten, ez zuen edaten... Denborarekin, giharrak urtu eta indarrak ahuldu zitzaizkion, eta ikusezina bihurtu zen azkenean. Ahots pittin bat besterik ez zitzaion geratu Oihartzun gaixoari, eta entzuten zituen hitzen amaierak bakarrik errepika zitzakeen. Norbaitek esaten bazuen:

—Ni Mikel naiz!

Oihartzunek errepikatzen zuen:

—Naiz, naiz, naiz...

Afrodita, maitasunaren jainkosa, erabat haserretu zen neska koitadu haren egoera ikusita, eta esan zuen:

—Bihotzik gabeko mutil eder horrek izango du zigor galanta egin duenaren

ordainetan.

Eta joan zen Nartzisorengana, eta lo zegoen bitartean sorginkeria gaizto bat egin zion:

—Ez duzu zeure burua ez den beste inor maitatuko! —esan zion.

Eta Nartziso esnatu zenean, putzu batera joan zen, egarri baitzen, eta putzuko uretan bere buruaren irudia ikusi zuenean maitemindurik geratu zen hartaz, eta ez zuen handik alde egiterik izan.

—Zein ederra naizen! —esaten zuen Nartzisok, eta bere irudiari begira geratzen zen.

Ez zuen jaten, ez zuen edaten... Denborarekin, giharrak urtu eta indarrak ahuldu zitzaizkion, eta lore zuri-horia bihurtu zen azkenean.

Lore horrek izen asko ditu: lilipa, anbulu gaiztoa... eta nartzisoa. Eta beti-beti leku urtsuetan jaiotzen da, putzuen ertzetan batez ere.

J. M. Olaizola "Txiliku"



1. OSATU EZAZU HURRENGO TESTUA BEHEKO HITZAK DAGOKIEN TOKIAN JARRIZ:

OIHARTZUN ETA NARTZISO

Oihartzun neska eder bat zen, oihan eta iturrietako ninfa pinpirina. Nartziso, berriz, garai haietako mutilik ederrena zen. Oihartzunek Nartziso ikusi zuen batean, erabat maitemindu zen hartaz. Nartzisok, ordea, ez zion batere kasurik egin, eta Oihartzun gajoa maitasunez gaixotu zen. Indarrak ahuldu zitzaizkion, eta ikusezina bihurtu zen azkenean. Ahots pittin bat besterik ez zitzaion geratu Oihartzun gaixoari, eta entzuten zituen hitzen amaierak bakarrik errepika zitzakeen.

ederrena Oihartzun maitemindu gaixotu errepika kasurik ahuldu

2. Goiko testua, Oihartzun neska ederrari buruz hitz egiten du, gai izango zinateke, Nartzisori buruzko laburpen txikitxo bat egiteko?

Pixka bat lagunduko zaitut. Erantzun hurrengo galdera hauei.

NOR ZEN NARTZISO? _____

ZER EGIN ZION AFRODITAK? (GAI IKUSTEN BAZARA, ZERGATIA ERE AZALDU DEZAKEZU)

ZER GERTATU ZITZAION SORGINKERIA ETA GERO?

Orain, idatzi ezazu goiko galderetan eman dituzun erantzunak ondorengo taulan.
Denak jarraian.